



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2017ko urtarrilaren 17a

11. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da 2017-2018 ikasturterako aurreinskripzio-prozesuaz informatzeko kanpaina bat egin dezan, irizpide objektibo, bidezko eta informatiboetan oinarritua, aldez aurreko hizkuntza ereduei dagokienez aldez aurretik ezer ezarri gabe eta familiei eragin gabe eta ikastetxea aukeratzeko askatasuna ziurtatuz. Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztu du (2. or.).

G S A I L A:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Parlamentu-taldeek 2017an jasoko dituzten diru-sariak (4. or.).
- Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren ordainsariak 2017ko ekitaldirako (4. or.).
- Foru parlamentarien bidaia ofizialengatiko ordainsariak 2017ko ekitaldirako (5. or.).
- Foru parlamentariak bilkuretara bertaratzearen truke 2017an jasoko dituzten ordainsariak (5. or.).
- Foru parlamentarien ordainsariak 2017ko ekitaldirako (6. or.).
- Nafarroako Parlamentuko funtzionarioen eta kontratatuturiko langileen ordainsariak 2017ko ekitaldirako (7. or.).
- Nafarroako Parlamentuko behin-behineko langileen ordainsariak 2017ko ekitaldirako (7. or.).

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da 2017-2018 ikasturterako aurreinskripzio-prozesuaz informatzeko kanpaina bat egin dezan, irizpide objektibo, bidezko eta informatiboetan oinarritua, aldez aurreko hizkuntza erduei dagokienez aldez aurretik ezer ezarri gabe eta familiei eragin gabe eta ikastetxea aukeratzeko askatasuna ziurtatuz.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Hezkuntza Departamentua premiatzen baita 2017-2018 ikasturterako aurreinskripzio-prozesuaz informatzeko kanpaina bat egin dezan, irizpide objektibo, bidezko eta informatiboetan oinarritua, aldez aurreko hizkuntza erduei dagokienez aldez aurretik ezer ezarri gabe eta familiei eragin gabe eta ikastetxea aukeratzeko askatasuna ziurtatuz.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikita dagoen Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 196. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, 2017ko urtarrilaren 19ko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Otsailaren erdialdetik aitzina egin ahalko da Haur Hezkuntzako (3tik 6 urtera) eta Lehen Hezkuntzako (6tik 12 urtera) eskola-aurreinskripzioa,

zeina bereziki zuzentzen baitzaie 3 urteko seme-alabak, Nafarroako hezkuntza-sisteman lehen aldiz sartuko direnak, dituzten familiei.

Eskola-adineko haurrak dituzten familiei Hezkuntza Departamentuak hezkuntzaren arloan egiten duen eskaintza ezagutzera emateko xedez, dibulgazio-kanpaina bat egin ohi da hainbat euskarritan (etxeetara bidaltzen diren gutunak, ikastetxeetan paratzen diren afixak, irratietako iragarki laburrak, hedabide idatzietako iragarkiak, eta abar).

Euskarri horietan bi kontu nagusi azpimarratu ohi dira. Bata, familiei ohartarazten diena seme-alaben aurrematrikula egiteko epea hasi dela; bestea, hezkuntza arloko ardura daukan administrazio publikoak familia horien eskura jartzen dituen berrikuntzak eta hezkuntza arloko eskaintza.

Horretarako, Hezkuntza Departamentuak aurrekontu bat ezartzen du informazio-kanpaina horrek eragindako gastuei aurre egiteko. Funtz publikoak dira, erabateko gardentasunez eta arduz administratu beharrekoak.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

1.- Parlamentuak Hezkuntza Departamentua premiatzen du 2017-2018 ikasturterako aurreinskripzio-prozesuaz informatzeko kanpaina egin dezan irizpide objektibo, ekitatezko eta informatiboetan oinarrituta, seme-alaben eskolatzearen hizkuntza erduei dagokienez familiei aldez aurretik ezer ezarri gabe eta haiengan eragin gabe.

2.- Kanpaina hori ikastetxea hautatzeko askatasuna bermatuz egingen da, araudi indardunaren arabera familiek horretarako eskubidea baitute, eta inolako esku-sartzerik gabe.

Corellan, 2017ko urtarrilaren 12an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Parlamentu-taldeek 2017an jasoko dituzten diru-sariak.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 9an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailtza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruak, 2017ko urtarrilaren 4an, parlamentu-taldeek 2017an jasoko dituzten diru-sariak onesteko txosten-proposamena aurkeztu du.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 35. eta 37. artikuluek ezarritakoarekin bat, hona ERABAKIA:

1. Ezartzea, 2017ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez, parlamentu-taldeek jasoko dituzten diru-sariak ez dutela inolako igoerarik izanen.

2. Onestea, 2017ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez, parlamentu-taldeek jasoko dituzten ordainsariak. Haien zenbatekoak hauek dira:

a) Diru-laguntza finkoa: 8.091,00 euro hilabeteko eta parlamentu-taldeko.

b) Diru-laguntza aldakorra: Kontzeptu hauen baturaren arabera zenbatekoa:

– Funtzionamendu-gastuak: 1.462,00 euro hilabeteko eta parlamentari bakoitzeko.

– Antolaketa-gastuak: 1.117,00 euro hilabeteko eta parlamentari bakoitzeko.

– Langile eta jarduera gastuak: 4.172,00 euro hilabeteko eta parlamentu-taldeko bost parlamentari bakoitzeko edo zatikiko.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren ordainsariak 2017ko ekitaldirako.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 9an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailtza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruak, 2017ko urtarrilaren 4an, Parlamentuko lehendakariaren 2017ko ordainsariei buruzko txosten-proposamena aurkeztu du.

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 37. artikuluan eta Nafarroako Parlamentuko Lehendakariaren Estatutuan ezarritakoari jarraikiz, ERABAKI DA:

1. Ezartzea, 2017ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez, Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren ordainsariak gehikuntza izanen dutela; hain zuzen ere, Estatuko legediak sektore publikoaren zerbitzuko langileentzat 2017rako ezartzen duen gehieneko gehikuntza globala.

2. Lehendakariaren 2017. urteko ordainsari gordina 56.686,28 eurokoa izanen dela onestea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Foru parlamentarien bidaia ofizialengatiko ordainsariak 2017ko ekitaldirako.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 9an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruak, 2017ko urtarrilaren 4an, foru parlamentarien bidaia ofizialengatiko ordainsarien araubideari buruzko txosten-proposamena aurkeztu du.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 15. eta 37. artikuluek ezarritakoarekin bat, hona ERABAKIA:

1. Onestea, 2017rako, foru parlamentarien bidaia ofizialengatiko eta Legebiltzarreko langileek lanaren kariatz egiten dituztenengatiko ordainsarien araubidea. Haien zenbatekoak hauek dira:

– Nafarroatik kanpora eginiko bidaiengatiko ordainsariak (mantenu-gastu arruntak): 50 euro egun bakoitzeko.

– Atzerrira eginiko bidaiengatiko ordainsariak (mantenu-gastu arruntak): 80 euro egun bakoitzeko.

– Lokomozio-gastuengatiko ordainsariak: 0,31 euro kilometro bakoitzeko.

2. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren Erregelamendua onetsi zuen maiatzaren 24ko 174/1999 Foru Dekretuaren 8. artikulua xedatutakoarekin bat, hauek dira kargarik gabeko zenbatekoen mugak 2017rako:

– Mantenu-gastuengatik: Espainiako lurraldearen barneko joan-etorriak direnean, 53,34 euro egun bakoitzeko; eta atzerrira eginiko bidaiak direnean, 91,35 euro egun bakoitzeko.

– Lokomozio-gastuengatiko ordainsariengatik: 0,32 euro kilometroko, gehi justifikaturiko bidesari eta aparkaleku gastuak ere.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Foru parlamentarietara bertaratzearen truke 2017an jasoko dituzten ordainsariak.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 9an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruak, 2017ko urtarrilaren 4an, bilkuretara bertaratzearen truke 2017an jasoko diren ordainsariak eta kilometro-ordainengatikoak onesteko txosten-proposamena aurkeztu du.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 15. eta 37. artikuluek ezarritakoarekin bat, hona ERABAKIA:

1. Ezartzea, 2017ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez, foru parlamentarietara bertaratzearen truke jasoko dituzten ordainsarietara gehikuntza izanen dutela; hain zuzen ere, Estatu-ko legediak sektore publikoaren zerbitzuko

langileentzat 2017rako ezartzen duen gehieneko gehikuntza globala.

2. Onestea foru parlamentarietara bertaratzearen truke 2017an jasoko dituzten ordainsariak. Haien modalitateak eta zenbatekoak hauek dira:

– 137,52 euroko dieta bertaratze bakoitzeko, helbidea Iruñean edo Iruñetik 25 kilometrora bitarteko herrietan daukaten foru parlamentarietarako.

– 162,61 euroko dieta bertaratze bakoitzeko, helbidea Iruñetik 25 kilometro baino gehiagora dauden herrietan daukaten foru parlamentarietarako.

3. Ezartzea, 2017ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez, Iruñetik kanpo bizi diren foru parlamentarietara bizileku duten herritik deituak diren parlamentarietara etortzeagatik ordaindutako loko-

mozio-gastuengatiko ordainsaria 0,31 eurokoa izanen dela, kilometro bakoitzeko.

4. Ezartzea, foru parlamentarien ordainsariei buruzko arauekin eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren araudiarekin bat, Iruñetik kanpo bizi diren foru parlamentariei bizileku duten herritik deituak diren parlamentu-bilkuretara etortzeagatik

ordaindutako lokomozio-gastuek pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren karga jasoko dutela.

5. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Foru parlamentarien ordainsariak 2017ko ekitaldirako.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 9an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruak, 2017ko urtarrilaren 4an, foru parlamentarien 2017ko ordainsariei buruzko txosten-proposamena aurkeztu du.

Foru parlamentarien ordainsariei buruzko arauetan eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 15., 17. eta 37. artikuluetan xedatutakoari jarraikiz, hona ERABAKIA:

1. Ezartzea, 2017ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez, foru parlamentarien ordainsariek gehikuntza izanen dutela; hain zuzen ere, Estatu-ko legediak sektore publikoaren zerbitzuko langileentzat 2017rako ezartzen duen gehieneko gehikuntza globala.

2. Lanaldi osoko araubideari atxikitako Mahai-ko eta Eledunen Batzarreko kide diren foru parla-

mentarien ordainsari gordina, 2017. urterako, 56.157,08 eurokoa izanen dela onestea.

3. Lanaldi osoko araubideari atxikitako gainerako foru parlamentarien ordainsari gordina, 2017. urterako, 49.916,30 eurokoa izanen dela onestea.

4. Lanaldi osoko araubideari atxiki gabeko Mahaiko eta Eledunen Batzarreko kide diren foru parlamentarien ordainsari gordina, 2017. urterako, 42.117,74 eurokoa izanen dela onestea.

5. Lanaldi osoko araubideari atxiki gabeko gainerako foru parlamentarien ordainsari gordina, 2017. urterako, 37.437,12 eurokoa izanen dela onestea.

6. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Nafarroako Parlamentuko funtzionarioen eta kontrataturiko langileen ordainsariak 2017ko ekitaldirako.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 9an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruak, 2017ko urtarrilaren 4an, Nafarroako Parlamentuko funtzionarioen eta kontrataturiko langileen 2017ko ordainsariei buruzko txosten-proposamena aurkeztu du.

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 37. artikuluan eta Legebiltzarreko Langileen Estatutuan ezarritakoari jarraikiz, ERABAKI DA:

1. Ezartzea, 2017ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez, Nafarroako Parlamentuko funtzionarioen eta kontrataturiko langileen ordainsariak gehikuntza izanen dutela; hain zuzen ere, Estatuko legediak sektore publikoaren zerbitzuko langileentzat

2017rako ezartzen duen gehieneko gehikuntza globala.

2. Onestea maila bakoitzaren hasierako soldatak 2017. urterako. Hauek dira haien urteko zenbatekoak:

Maila	Urteko zenbatekoa
A	25.534,60 euro
B	21.481,46 euro
C	17.819,62 euro
D	15.519,56 euro

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Nafarroako Parlamentuko behin-behineko langileen ordainsariak 2017ko ekitaldirako.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 9an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruak, 2017ko urtarrilaren 4an, Nafarroako Parlamentuko behin-behineko langileen 2017ko ordainsariei buruzko txosten-proposamena aurkeztu du.

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 37. artikuluan eta Legebiltzarreko Langileen Estatutuan ezarritakoari jarraikiz, ERABAKI DA:

1. Ezartzea, 2017ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez, Nafarroako Parlamentuko behin-behineko langileen ordainsariak gehikuntza izanen dutela; hain zuzen ere, Estatuko legediak sektore publikoaren zerbitzuko langileentzat 2017rako ezartzen duen gehieneko gehikuntza globala.

2. Honako behin-behineko langileen ordainsari gordinak ezartzea, 2017. urterako:

– Lehendakaritzako Kabineteko burua: 51.139,62 euro.

– Lehendakaritzako idazkaria: 34.685,84 euro.

– Mahaiko kideen idazkaria: 27.892,34 euro.

– Parlamentu-taldeen laguntzaileak: 27.892,34 euro.

3. Parlamentu-taldeen laguntzaileei eta Mahaiko kideen idazkariari aplikatzea 2012ko abenduaren 17ko Mahaiaren Erabakiaren bidez zerbitzua aitortpenari buruz onetsitako irizpideak.

4. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

